



Denbora-

1 Lotu bikoteak


Josunek arrandegian laguntzen dio amari. Haren lana balio bera duten arrainak binaka jartzea da.

Lagunduko al diozu zeregin horretan?



2 Sarraileak

Peruk autoko bi giltza zituen. Giltza guztiak nahasi dituenetik, ordea, ez daki zein diren autoko gitzak. Zein bi giltza dira berdinak?



3 Labirintoa

Z hizkiak hiztegitik alde egin du, eta A haren bila dabil. Nola iristen ote da, baina, Z dagoen lekura? Lagundu iezaiozu A hizkiari bidea topatzen.

-pasak

4 Sagu Jakintsua

Zer moduz moldatzen zara geografiarekin?

Ea asmatzen duzun herrialde bakoitza zein kontinentetan dagoen?

IRAN

TXILE

BULGARIA

ANGOLA



EUROPA

ASIA

AFRIKA

AMERIKA

Erantzunak: 1.- A-E, H-I, B-D eta G-F. 2.- 1 eta 4. 4.- Iran-Asia, Txile-Amerika, Bulgaria-Europa eta Angola-Afrika.

5 Simetriak

Naiarak gero eta marrazki konplexuagoak egiten ditu. Marrazkiaren erdia ezabatu dugu. Irudia osatzea zure lana da.

